

Komite Internazionalistek antolatutako brigada Kurdistanen izan zen martxoan bertako borroka hurbiletik ezagutzeko eta udan joango den brigada prestatzeko. Amed hiria (Diyarbakir kurdue-raz) izan dugu hainbat erakunderekin bilerak egiteko leku nagusia, bertan ezagutu ahal izan ditugu herri kurduaren borroka desberdinak.

Martxoaren 30ean turkiar Estatuan egin ziren udal hauteskundeek erabat berotu zuten egun horietako giroa. Bozketa horietarako herri kurduaren apustua BDP Bakea eta Demokraziaren Alderdia izan zen. Ameden egun batzuk egin ondoren, Mardinera joan ginen. Bertan Februniye Akyolekin hitz egin genuen, bera baitzen alkate-tzarako BDPren hautagaia, Ahmet Törke gizonezkoarekin batera. Izan ere, BDPko hautagaitzak gizon eta emakumeen artean partekatutak izan dira.

BDP ezkerreko alderdi kurduak hauteskundeak irabaztea lortu zuen Mardinen, hau da, azken urteotan Turkiako Gobernuan dagoen AKP alderdi islamistaren menpe izandako hirian. Hemen-dik aurrera kurduen eskuetan egongo da eta Februniye Akyol bera eta Ahmet Törke dira Mardingo alkate berriak. Akyolekin honako elkarrizketa hau izateko aukera izan genuen.

Mardin turkiar Estatuko hegoekialdean dago, Siriako mugatik gertu. 80.000 biztanle inguru ditu. Hirian etnia eta erlijio desberdinak elkarrekin bizi izan dira eta bizi dira gaur egun ere. Sarritan gobernuek eta inperioek eragindako sarraskiei aurre egin behar izan dieten arren, BDPko kideen proposamena elkarbizitzaren aldeko apustu argia da.

Noiz eta zergatik hasi zinen politikan esku hartzen?

Kurdistanen, jaiotzen garen unetik hasten gara politikan. Kurdistanen jaio naiz, asiriarra jatorriz, eta, gainera, emakumea. Ezaugarri horiekin, borrokarako jaio nintzen, ezinbestean. Txikitatik etengabe ikusi

«Oso gauza gogorrak ikustea tokatu izan zait. Txikitan, emakumeen erailketak ikusi nituen; bortxaketak eta torturak eguneroko kontua ziren. Etxe barruan emakumeek egin behar zuten lan guztia»

«Kurduok nahi dugun sistema oso desberdina da: aniztasunean oinarritzen da, hainbat jatorritako herritarrek bizi baikara hemen. Aniztasun hori islatu behar du sistemak, elkar errespetatuz eta inork inor jan gabe»

